

ADDEtik, Euskal Herriko dantza profesionalen elkartetik, ekintza hau dantzaren nazioarteko eguna ospatzeko antolatu dugula gogorarazi nahi dizuegu, muga politiko eta kultural guztiak gainditzen dituen adierazpen artistiko hau eta bere unibertsitalitatea ospatzen den eguna.

Egun hau lanbide honi bisibilitatea emateko eskeintzen duen aukera beharrezkoa ikusten dugu, dantza lanbidea delako eta Euskal Herrian oraindik asko dagoelako egitear profesionalok lan bizi bat izan ahal izateko. Dantza adierazpen bide bezala aukeratu dugun guztiok ere batu nahi ditugu, guztion artean amankomuneko hizkuntza honen dibertsitatea ospatu dezagun.

Izan ere, zer egingo genuke dantzarik gabe? Zer egingo genuke arterik gabe? arteak eta kulturak libreagoa, kritikoagoa, zabalagoa eta baloretan aberatsagoa den gizarte bat eraikitzen dute, bidezkoagoa den mundu bat eraikitze beharrezkoak diren baloreak.

Dantzak oso zabalkunde gutxi dauka, eta gizartean arrarotzat hartzen gaituzte egiten duguna ezagutzen ez delako.

Dantza hiritarrei hurbiltzen duten ekintza eta politikak behar ditugu, bere birtute guztiak ezagutarazteko, ikusle izango den pertsonatik arlo artistiko desberdinetan dantza praktikatu duen horretara, dantzak asko bait dauka emateko eta gaur egun gutxi batzuri baino ez da heltzen.

Zentzu honetan, europako egoeratik oso urrun gaude.

ADDEtik, europako beste herrialdeetako politika kulturalekin parekatuko gaituzten politika kulturalak martxan jartzeko eskatu nahi diegu erakundeei.

Hementxe, Bilbon bertan, Araban bezala, ez daukagu gure lanbidea aurrera eramatea ahalbidetzen duen Dantza Etxerik, eta etxerik gabe oso zaila da egitura artistiko bat sortzea, ezta elkar lana, ezta sektore gisa hastea.

Alegia, Athletikek lehenengo dibisioan egon nahiko baluke bezala, San Mamesik gabe.

Lanbide hau duin egin behar dugu.

Beraz askeago egiten gaituen adierazpen artistiko eder hau ospatzeaz gain, aipatutako beharrianak aldarrikatu nahi ditugu, Euskal Herriko dantzak garatzen jarrai dezan, eta gure profesionalok bizitza duin bat izan dezaten, datozen belaunaldiek dantza lanbidea aukeratzean guk gaur egun bizi dugun egoera ezegonkorra izan ez dezaten.

Luzapen gehiagorik gabe, dantzaren egun zoriontsua opa dizuegu.

Eskerrik asko hainbeste ematen digun arte honi, guztiok konektatzen gaituena, hizkuntzarik unibertsalena gorputzarena delako eta oraindik asko daukagulako esateko.